Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

411

Abenduak 15, 2021

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 Gabonak
6 Noelia Lorenzo
7 Kalean bai
8 Kirolak: Leka Enea
9 Kirolak: Gabonetako Krosa
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: IGA Abesbatza
14 iGazte
15 Agenda

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

51639

29087

45793

1921eko abenduaren 25ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkarian orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak irakur daitezke. Lehen idatzian aduanetako legedia aipatzen da. Jarraian, RE-LA-MI-DOk irundarren musika zaletasuna zalantzan jartzen du, Irunen Figuerido biolinistaren kontzertua eskatzeaz gainera. Ostean, esne eskasiaren arazoa nondik datorren aztertzen da, esportazioek gabeziarekin zerikusia izan dezaketela azaltzeko.

Bigarren orrialdean, kirol kronikaren barnean, Irungo eta Hondarribiko udalek antolatutako ongintzazko partiduak izandako arrakasta aipatzen da, partidaren ekitaldian bildutako diru kopuruarekin batera. Gainera, Vie au Grand Air taldearen aurka jokatutako partiduaren nondik norakoak laburbiltzen dira. Ostean, Hendaian Gerran Hildako hiritarrak omentzeko eraiki den oroigarriaren inaugurazioarekin loturik, ekitaldia nolakoa izan zen eta zeintzuk parte hartu zuten kontatzen da. Ondoren, "Seamos respetuoso" izenburua duen idatzian gazteen errespetu faltak salatzen dira, ekitaldi publikoetan jarrera desegokiek eragiten dituzten ezerosotasunak salatzeko. Orrialdea amaitu aurretik Los Buenos Amigos elkarteak Gabonen inguruan antolatutako ekintzen berri ematen da.

Aldizkariaren hirugarren orrialdean, berriz, Joseph Choribiten heriotza jakinarazten da. "En el Municipio" atalean, ohiko moduan, azken udal bilkurako parte-hartzaileek hartutako erabakiak jakinarazten zaizkie irakurleei. Jarrian,Jose Izquierdo Lozanoren eta Adrián Picavea y Leguiaren heriotza aipatzen da. "Un poco de todo" atalak hainbat berri labur biltzen ditu aldizkaria amaitu aurretik, hala nola, 1921ean Olentzero lehiaketa bertan behera geratu izanaren arrazoiak, Hondarribia kaleko obrak, Gabonetako Loteriak Irunen saririk utzi ez izana eta Aduana ikuskariaren bisita aztertzen dira.

Argazkiak:
516339: Santiagotarrak taldearen antzezpena, 1967ko Olentzero Lehiaketako bigarren sariaren irabazlea.

29087: Irungo "Teatro Principal" antzokiaren irudia, Juan de la Cruz eta Zuberoa kaleen elkargunean kokatua.

45793: Aldapa Elkartearen Zilarrezko Ezteiak ospatzeko Patronatuaren eraikinaren aurrean egindako erretratua (1958ko abenduaren 3an).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Bidasoa ibaiak azkenekoz gainezka egin zuenekoa

Azken egunetan botatako euri-jasa etengabeen ondorioz, Bidasoa ibaiak gainezka egin zuen abenduaren 10ean. Uholdeen ondorioz Behobia auzoko hainbat kale urez bete ziren, Veneziako kanalak bailiran. Ura auzoko etxe, garaje eta establezimenduetan sartu zen kalteak eraginez. Bestalde, trafikoa oztopatu eta mozketak eragin zituen. Hala ere, ez da Behobia auzoa urez bete den lehen aldia izan, inguratzen duen ibaiaren urgoraldiaren ondoren.

Abenduaren 9an hasi zen egoera zailtzen Irungo ibaian eta erreketan, ur-maila igotzen joan zein heinean. Arratsaldeko lehen orduan Larrialdi Planaren Jarraipen Mahaia bildu zen egoera aztertzeko, baina momentuz inguruan ez zen arriskurik atzemataen. Ordu pare batzuk geroago, ordea, lehen errekek gainezka egin zuten eta Jaizubia auzoko hainbat puntutan lehen uholdeak gertatu ziren. Esaterako, Txingudi Ikastolako pista aintzira bihurtu zen.

Gaua iristearekin batera, egoerak okerrera egin zuen. Uholdeen Aurkako Protokoloa aktibatu eta Behobia auzoan, ibaiaren ertzeko kaleetan, uholdeen aurkako uhateak jarri ziren. Gainera, bizilagunei ibaitik hurbileko zonaldeetan eta garajeetan aparkatuak zeuden autoak kentzea eskatu zitzaien.

Uhateek beren lana egin zuten eta Bidasoa ibaiaren urgoraldia eteten lagundu bazuten ere, ez zuten guztiz saihestu ura Behobiako lehen kaleetara iritsi zedila. Goizaldeko 04:30ak aldera Bidasoa ibaiak bere ertzak gainditu zituen, pixkanaka inguruko kaleak erreka bihurtuz. Ordutik, Udaltzainak, Babes Zibileko agenteak, suhiltzaileak, Txingudiko Zerbitzuko eta Udaleko beste alor batzuetako langileak etengabe lanean aritu ziren, uhaldiaren eta urak gainezka egitearen eraginak arindu nahian. Uhaldiak gehien kaltetutako eremuak, batik bat, Zaisa I aparkalekua, Lastaola eta María Juncal Labandibar kaleak eta Mendipe ingurua izan ziren. Ura lau etxetara ere sartu zen.

Trafikoari ere gogor eragin zion urak. Abenduaren 10eko goiz erdialdean ezinezkoa zen Behobiara Irun erdialdetik autoz sartzea, uholdea dela-eta Juan Thalamas Labandibar kalea moztu behar izan baitzen Osibiribiletik. Ibilgailuak Blaia hiribidetik eta Zaisa 3tik desbideratu ziren. Era berean, Endarlatsa ibilbideko biribilguneetara iristea ezinezko bihurtu zen, ur ugari pilatu baitzen han eta aukera bakarrak autobidetik Iparralderantz edo Donostiarantz irtetea edo Nafarroako errepidea hartzea izan ziren. AP8an Irungo mugan, Baionako norabidean, ordu batzuez trafikoa kamioientzako itxi zen.

Goizeko 10:30etan Guardia Kidegoaren eraikinean bildu zen egoeraren jarraipena egiteko osatutako mahaia. José Antonio Santano alkatearen hitzetan, "ur-maila hauek historikoak dira guztiz". Alkateak azaldu duenez, Endarlatsan ez da inoiz erregistratu 8,34 metrotik gorako mailarik. "Protokoloak aurrera jarraitzen du, uholdeen kontrako hesiekin, eta auzotar guztiei jakinarazten diegu egoera kezkagarria dela", adierazi du alkateak bileraren amaieran.

Behobiako auzoak ia 24 ordu behar izan zituen uhaldiaren aurreko itxura berreskuratzeko. Bidasoa ibaiaren altuera jaisten joan zen heinean, posible izan zen Maria Juncal Labandibar eta inguruko kaleetako ura ateratzea. Arratsalde horretan Bidasoa ertzeko Bidegorria garbitzeko lanekin jarraitu zen. Abenduaren 11n goizeko 11:40etan Udalak Uholde Arrisku plana desaktibatu zuen eta hiriak ohiko itxura berreskuratu zuen. Dendari eta bizilagunek, ordea, egun gehiago behar izan dituzte, urak kaltetutakoak zenbatu eta aseguruekin beharrezko guztia lotuta utzi arte.

Ruben Fraile Behobiako Merkatari Elkarteko presidentearen hitzetan, "eroritako ur guztiaren ostean horrelako zerbait gerta zitekeela aurreikusten genuen". Aurreko egunean Udaltzainek uholde arriskua jakinarazi zietela azaldu du eta aurreikuspenak bete dira. "Ezer gutxi egiteko aukera izan dugu, ura igotzen hasten denean, begira gelditzea da aukera bakarra", azaldu du merkatarien ordezkariak. Itsasgora goizeko 9:00etarako aurreikusita zegoen arren, 10:00etan oraindik ur mailak gora egiten jarraitzen zuen. Ruben Fraile La Cave dendako nagusia da eta zorionez ura bertaraino iritsi ez bada ere, merkatari elkarteko ordezkariak hiriko hainbat saltoki, garaje eta etxebizitza kaltetu direla gogoratu nahi izan du.

Auzotarren kezka
Behobiako bizilagun eta merkatariek tentuz begiratu zioten ibaiari egun horietan zehar, uholdeen arriskuarengatik kezkatuak.

Fructuoso Sánchez auzoko Casa Martín dendako dendaria da. Abenduaren 10eko goizeko 10:00etan bere dendako sarrerak idor jarraitzen zuen, atarian putzu txiki bat pilatzen zen bitartean. Hala ere, dendara iritsi eta egoera zein zen ikusi arte beldur handia izan dutela onartzen du. "Bidasoa ibaian egindako hobekuntzekin berriro uholderik gertatuko ez zela zirudien, baina orain dela 10 urte kalte handiak eragin zizkigun uhaldiak" adierazi du Fuctuoso Sánchezek.

Arazoak beste zenbait puntutan
Denboralearen ondoriozko arazoak izan ziren Irungo beste puntu batzuetan, botatako euri-jasak zirela eta, baina goizak aurrera egin ahala hobera egin zuen egoerak. Hiriko leku batzuetan pilatutako putzuez gain, aipatzekoak dira Ermita kaleko etxe batean ostegunean izandako arazoak, Bidaurre-Ureder industrialdean haizeak botatako zuhaitz batzuk edo Jaitzubiko errekaren goraldia. Gainera, saihesbidetik Zubimuxuko aldaparako sarbidea berriro ireki zen, ura zela eta ordu batzuez itxita egon eta gero, bai eta Olaberritik Katea auzorako errepidea ere, eroritako zuhaitza erretiratu ostean.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irunek Eguberrietako hiriburu bihurtzeko helburuarekin ekingo die Gabonei

Irailean aditzera eman zen bezala, Irungo Udalak hiria Gabonetako hiriburu bihurtzeko asmoari eutsi dio. Antolatutako ekintzak abendu osoan zein urtarrilaren hasieran egingo dira. Horrela, Irungo auzo eta kaleak jende ororentzako jarduerez beteko dira hiriko elkarte sarearen laguntzarekin antolatutako ekintzei esker. Hala ere, jarduera guztien antolaketa osasun agintariek ezartzen dituzten neurriengatik baldintzatuta egongo da.

"Irun, zure Eguberrietako hiriburua" kanpaina aurkezteko José Antonio Santano alkateak azaldu duenez, "Ziurrenik Irunen izan dugun Eguberrietako kanpaina handiena da". Irungo alkatearen hitzetan, oso hilabete gogorrak igaro ostean, oraindik erne ibiltzea eta erantzukizunez jokatzea beharrekoa bada ere, urteko garai hau oso garrantzitsua izaten da hiriko sektore askorentzat. "Ilusio handiz prestatu dugu programa, batez ere irundarrei begira, baina, baita ere, pentsatuz egun horietan eskainiko ditugun plan guztiek erakarrita jende asko etorriko dela egun pasa", adierazi du José Antonio Santanok.

Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak azaldu duenez, inoiz baino aukera handiagoa izan da programa honetan parte hartzeko. Izan ere, hiriko elkarte sareak aktiboki parte hartu du egitarauaren antolaketan. Batetik, bertako merkataritzako eta ostalaritzako elkarteek beren ekarpenak egin dituzte, krisiak haien sektoreak asko kolpatu arren, garai hau haientzat funtsezkoa baita. Horregatik, antolatutako ekintzen zati handi bat hiriko merkataritzaguneetan egingo da. Bestetik, kultura entitateek ere laguntza handia eskaini dute.

Gabonetako kanpainaren barneko lehen ekintzetako bat abenduaren 3an San Juan plazako haur jolasen alboan egindako Eguberrietako argiak pizteko ekitaldia izan zen. Irungo Kontserbatorioko ikasle talde batek gabon kantak jo bitartean, alkateak Elatzetako ikasleekin batera hiriko apaingarriak piztu zituen. Gainera, aurreko urteekin alderatuta, aurten Eguberrietako argietarako aurrekontua % 40 inguru igo da.

Antolatutako ekintzen egitaraua nahiko zabala denez, informazio guztia udalaren webgunean kontsultatu ahal izango da. Era berean, udalaren sare sozialetan ere, hau da, Twitterren eta Instagramen @irun_informa helbidean informazioa etengabe gaurkotuko da.

Eguberrietako herrixka

Abenduaren 3an Sarjia parkeko Eguberrietako herrixka zabaldu zen. Aurtengo Gabonetako proposamen berri bat da eta urtarrilaren 9ra arte egongo da martxan. Hainbat irudi eta elementu apaingarrik girotuko dute parkea eta egun jakin batzuetan haurrentzako ekintzak egingo dira bertan. Zehazki, hauek dira Sarjia parkean ipiniko den karpan egingo diren ekintzak: Abenduaren 17an, 17:00etatik 20:30era, errealitate birtualeko saio bat. Abenduaren 19an, arratsaldean, mahai jokoak, Alde Zaharra-San Juan auzo elkartearen eskutik. Abenduaren 20an, serigrafia saioa. Abenduaren 24an, erraldoien tailerra, Bidasoako Erraldoiak elkartearen eskutik. Abenduaren 27an, serigrafia saioa. Urtarrilaren 4an, gynkana eta zozketa Trikuharri elkartearekin.

Bola erraldoi ibiltaria

Irungo Eguberrietako beste 'klasiko' bat bola erraldoi ibiltaria dugu. Instalazio hori barnean argazkiak ateratzeko prestatuta dago, eguberrietako apaingarriz betea baitago. Bola erraldoi ibiltaria hiriko merkataritza-guneetan barrena ibiliko da txandaka. Abenduaren 17an Palmera Monteron egongo da eta 19an turismo bulegoaren ondoan. Urtarrilaren 3an San Migelera eta urtarrilaren 4an San Juanera iritsiko da. Honako ordutegi hauetan egongo da irekita: 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etik 20:00etara.

Izotz pista

Abenduaren 10ean Ficobako izotz pista jarri zen martxan. Nahiz eta Irunen azken urteetan horrelako instalazio bat jarri izan den, inoiz jarri izan den izotz pista handiena da aurtengoa, 1.000 m2 baititu. Gainera, egun jakin batzuetan girotze emanaldi bereziak egingo dira bertan. Ficobaren kanpoaldean dago eta urtarrilaren 16ra arte patinatu ahal izango da pistan. Horrela, Eguberriak igaro ostean, beherapen garaian jendea Irunera erakartzen jarraitzeko baliatu nahi da pista. Izotz pistara iristeko doako autobus bat egongo da, Ficoba eta erdialdea lotuko dituena.

Pistaren ordutegia egun batetik bestera asko aldatzen denez, egokiena ordutegiak Irungo Udalaren webgunean kontsultatzea da. Prezioei dagokienez, berriz, 13 urtetik beherakoek 2 euro ordaindu beharko dituzte eta 8 euroren truke 5 sarrerako bonoa eskuratuko dute. Helduen eta 13 urtetik gorako haurren sarrera 3 eurokoa izango da eta 5 sarrerako bonoa lortzeko, berriz, 12 euro ordaindu beharko dira.

Eguberrietako azoka

Erreferentziazko beste gune bat berriz ere Eguberrietako azoka izango da, bertako merkataritzaren eta ostalaritzaren eskutik. Zabaltza plazan egingo da berriz ere, baina etxola gehiago jarrita, 20 guztira. Abenduaren 17an irekiko da, ostiralarekin, 11:00etan, eta abenduaren 31ra arte egongo da irekita, Eguberri egunean, abenduaren 25ean, izan ezik. Hau izango da ordutegia: goizez, 11:00etatik 13:30era, eta arratsaldez, 16:30etik 20:00etara.

Merkataritzaren eskutik, hirian beste ekimen berri bat egingo da aurtengo Gabonetan. Egitasmoak "Ipuinetako erakusleihoak" izena du eta abenduaren 9tik aurrera, hamar establezimenduk erakusleiho robotizatuak sortuko dituzte, kanpoaldetik QR baten bidez aktibatu ahal izango direnak. Tom Sawyer-en abenturak, Edelvives editorialarena, izango dugu ikusgai. Ipuinaren 10 eszena erakutsiko dira, Antonio Lorente-ren ilustrazioekin.

Txirrista erraldoia

Abenduaren 17an txirrista erraldoia estreinatuko da. Oraingoan txirrista handiagoa izango da eta, berritasun gisa, Pio XII.a plazan jarriko da. Urtarrilaren 9ra arte egongo da irekita, udal webgunean kontsultatu daitekeen ordutegian. Pertsonako euro 1 izango da prezioa. Adierazi beharra dago izotz pista eta txirristarako sarrera konbinatua eskuratzeko aukera egongo dela 2,50 eurotan 13 urtetik beherako haurrentzat; eta 3,50 eurotan helduentzat eta 13 urtetik gorakoentzat.

Kale animazioa

Kale animazioa kanpainaren beste erakargarrietako bat da, eta hamaika jarduera antolatu dira hiri osoan zehar egiteko, hala nola kalejirak, kontzertuak, DJ saioak eta txarangak. Ekimen horiek hiriko toki desberdinetan egingo dira, Eguberriak auzo guztietara eramateko asmoz.

Gabonetako kanpaina abenduaren hasierarekin batera hastea aurreikusita zegoen. Eguraldi txarrak, ordea, ez zuen horretarako aukerarik eman eta zenbait ekintza bertan behera geratu ziren. Abenduaren 10ean izotz-pista Disney panpinekin dinamizatu nahi zen, baina ekintza bertan behera geratu zen. Era berean, abenduaren 10ean eta 11n izotz-pistan egitekoak ziren DJ saioak abenduaren 23an eta 27an egingo dira. Abenduaren 11ko Zabaltza plazako tango argentinar emanaldia bertan behera geratu zen. Santiagoko Deabruen kalejira Iparralde hiribidearen eta Zabaltza plazaren artean izango da, eta Demodet Quartet taldearen emanaldia Zabaltza plazan, 20:30etik 22:00etara.

Abenduaren 17an 18:30etik 20:30era San Vicente de Pauleko majoretteak San Migeletik Luis Marianora ibiliko dira. Abenduaren 18an Irungo Atsegiña txaranga Behobian izango da 12:00etatik 14:00etara. Arratsalde horretan Burrunba Elektropatxarangaren emanaldia 19:00etan hasi eta 21:00etan amaituko da, Luis Marianotik San Juanera, Zabaltzatik igarota. Hurrengo egunean, abenduaren 19an, Colon ibilbidean Ondare Elkartearen erraldoiak ibiliko dira 12:00etatik 13:00etara eta 11:30etik 14:00etara dantza-akademien emanaldiak eskainiko dituzte, Dantza Eguna dela eta. Abenduaren 29an 19:00etatik 21:00etara hiriko kaleetan Rock ikuskizuna egongo da. Azkenik, abenduaren 30ean 18:00etatik 20:00etara, Oihan Vega DJak girotuko du izotz pista, eta dantza akademien emanaldiak egongo dira 17:30etik 20:30etara.

San Migel eta Alde Zaharra-San Juan

Era berean, aurten ahalegin berezia egin da hiriko agente desberdinekin programa partekatzeko eta parte hartzera gonbidatzeko. Kolaborazio horretatik sortu da aurtengo berrikuntza handienetako bat Bidashop eta San Migel auzo elkartearekin batera: karpa bat egongo da gazteentzako eta familientzako ekintzekin Txanaleta plazan eta oraindik zehazteko dauden beste jarduera batzuk. Zentzu horretan, azpimarratu Alde Zaharra-San Juango auzo elkartearen partaidetza izango dela kaleak dinamizatzeko ekintzekin.

Eguberrietako jarduerak Oiasso museoan

Eguberriak direla eta, Oiasso Erromatar museoak bereziki etxeko txikientzat izango diren jarduerak prestatu ditu. Ekintzak urte amaierara arte egingo dira eta jende asko bertaratzea espero da.

Abenduaren 11n eta 18an (larunbatak), meatzari trenak azken irteerak egingo ditu Irugurutzetara goizeko 11:00etatik 12:30etara. Abenduaren 12an, 19an eta 26an eta urtarrilaren 2an eta 9an (igandeak), Irun erromatarretik ibilaldia eta Santa Elena ermitarako bisita egin ahal izango da goizeko 11:00etatik 12:30etara. Horretarako, lagungarri izango dira TIR doako aplikazioa eta Oiassoko aztarnategi arkeologiko nagusien 3D birsorkuntzak.

Abenduaren 22an, 17:15etik aurrera, udazken honetan Oiasso museoan egin diren antzerki tailerretako parte hartzaileek emanaldiak eskainiko dituzte ikastaroari amaiera emateko. Haurrek eta helduek egindako tailer horiek Kutxa Fundazioaren laguntzarekin eta Oiassortu programaren barruan egin dira, eta helburua izan da kultura, historia eta ezagutza arte adierazpenaren bidez partekatzea. Abenduaren 23an, 18:00etatik aurrera, "Oiassoko emakumeak" bakarrizketen beste emanaldi bat egingo da museoan. 2021. urte osoan eskaini dira bakarrizketa horiek, eta horiek ere Kutxa Fundazioak babestutako Oiassortu programan sartzen dira. Ekitaldi horietarako sarrera doan izango da, tokia bete arte.

Batez ere 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, Oiasso Museoak mosaikoen tailerra eskaintzen du. Aukera ona da teknika erromatarra modu errazean ezagutu eta tesela txikiak erabiliz aleren bat egiteko. Jarduera hau abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an egingo da (ostiralak), 11:00etatik 12:30era.

Abenduaren 29an eta urtarrilaren 5ean (asteazkenak), 8-12 urte arteko haurrek beren antzerki maskara sortu ahal izango dute antzerki greko klasikoaren oinarrizko elementu batean sartzeko aukera emango dien eskulan tailerrean. 11:00etatik 12:30era egingo da jarduera hori.

Abenduaren 30ean, ostegunarekin, eta urtarrilaren 7an, ostiralarekin, (11:00-12:30), 8 urtetik 12ra bitarteko umeak arkeologo bihurtu ahal izango dira egun batez, eta aurkitutako objektuek zer misterio ezkutatzen dituzten deskubritu, museoko laborategian.

Urtarrilaren 8an, larunbatarekin, familian egiteko jarduera bat eskainiko du museoak: helduek, gazteek eta umeek marrazketa eta pintura lehiaketa batean parte har dezakete, eta sari dibertigarriak irabazi. Parte hartzen dutenak museora sartu ahal izango dira, eta han, bildumako pieza arkeologikoren bat marraztu ahal izango dute, edo bisitaldian gehien gustatu zaien gauzaren bat.

Jarduera horietan guztietan, mugatua da edukiera. Informazio gehiago eta erreserbak: 943639353 /info-oiassomuseo@irun.org; edo www.oiasso.com.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados
INFORMA ZAITEZ!
Etxez etxeko laguntza
EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean
EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra
EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
-Egoitzan
-Enpresan

Noelia Lorenzo, idazlea:

"Idazten nuen bitartean, uste dut gehien negar egin dudan nobela dela"

Argazkia: Estudio Gover

Noelia Lorenzo idazleak bere azken eleberria argitaratu berri du. "Animales heridos" titulua ipini dio bere azken lanari, guztira bost eleberrik osatutako sagari amaiera emateko. Horrela, Eider Chassereau agentearen eta Jon Ander Macua ofizialaren abenturen azken atala idatzi du. Lana argitaratuta, idazle irundarrak aurkezpen ekitaldietan murgilduta dagoela azaldu du.

"Animales heridos" liburua publikatu ostean, zeintzuk izan dira lehen erreakzioak?
Jada lehen aurkezpen ekitaldiak egin ditut eta, egia esan, oso pozik nago. Esaterako, lehen aurkezpena azaroaren 26an Irungo CBA Liburutegian egin nuen. Liburutegiak utzitako gelan 70 pertsonentzako lekua utzi ziguten eta oso pozgarria izan zen aretoa bete zela ikustea. Donostian, Durangon edo Bilbon ere izango ditut liburuen sinadurak. Beraz, aje handiko egunak datoz.

Liburu berria aurrez aurre aurkeztu ahal izatea eskertzen duzu?
Bai, badirudi azkenean normaltasunera itzuli garela, baina ez erabat. Nire aurreko eleberria, "La estrella de quince puntas", aurkeztu nuenean aretoetako edukierak egungoak baino murriztuagoak zeuden. Nobela hori etxeratze agindua iritsi baino astebete lehenago argitaratu zen. Beraz, liburuaren aurkezpen ekintzak goizetik gauera bertan behera geratu ziren, programatutako aurkezpen asko bainituen eta dena bertan behera utzi behar izan bainuen. Egia da zerbait egin nuela online, baina ez da aurrez aurre egitea bezalakoa. Liburua argitaratu ondoren, lau hilabete itxaron behar izan nituen lehen aurkezpena aurrez aurre egiteko. Garai hartan, edukiera oso txikia zen, eta bakarren bat 12 pertsona eskasekin egin zen. Horrek aurkezpenetako giroa hotzagoa izatea eragin zuen. Oraindik erabat normaltasuna berreskuratu ez dugun arren, lehen genuen egoerara hurbiltzen ari gara pixkanaka.

Gabonak, salmentei dagokienez, data garrantzitsuak izango dira idazleentzako?
Bai, aukera aprobetxatu behar da. Izan ere, lehen aldia da liburu bat argitaratzen dudala garai honetan. Gabonak baino lehen denez, salmentak asko handitu daitezkeen data garrantzitsua da. Horregatik, uste dut beharrezkoa dela liburuari merezi duen sustapena ematea, jaiegunak iritsi baino lehen.

Bost nobelek osatutako sagaren amaiera da. Non dago irakurleak erakartzeko sekretua?
Egia esan, ez dakit. Uste dut zerikusi handia duela kontatzeko moduak, oso zuzena bainaiz, eta ez ditut gauzak xehetasun gehiegirekin deskribatzen. Nire liburuek elkarrizketa zati luzeak izan ohi dituzte eta oso zinematografikoa da idazten dudan guztia. Hainbeste eleberriren ondoren, hurbiltasunezko lotura sortzen da irakurleekin. Jendea hasi zait esaten pena handia ematen diela saga bukatzeak eta pertsonaiak faltan botatzeak. Batzuek sentitzen dute lagunak bezalakoak direla, eta denoi ematen digu pena agur esateak. Nire asmoa ez zen txikle bat bezala luzatzea, horregatik gero arte esatea erabaki dut eta gero ikusiko dugu zer gertatzen den. Istorio horrekin gelditzeko unea dela iruditzen zait.

5 eleberri eta gero, normala al da jendeak pertsonaiekin enpatia izatea?
Harrigarria da. Irakurleek pertsonaiekin batera barre, negar eta sufritu egiten dutela ikusten dut. Duela gutxi, Murtziatik, maitasun handiz idatzitako aipamen bat bidali zidaten, itzuli arte behar zuten denbora itxarongo zutela erabakiz. Oso hitz politak eskaintzen dizkidate niri, baita pertsonaiei ere.

Beste behin ere, ekintzaren zati bat Irundik gertu garatzen da. Hori erakargarria da tokiko irakurleentzat?
Bai, nik uste dut irakurleek asko eskertzen dutela istorioa kokatzea eta horrek beste modu batera bizitzeko aukera ematen diela. Ekintza bakoitza non gertatzen den jakitean, irakurleak gai dira, adibidez, erreka bakoitzak zer usain duen jakiteko. Azken eleberri honetan Txingudiko badia asko aipatzen da. Izena irakurtzearekin bakarrik, irudia gure buruan agertzen da. Gure ingurua inoiz bisitatu ez duten irakurleek ere eskertzen dute gure bazterrez hitz egitea, horrek bidaiatzeko eta inguru berriak ezagutzeko aukera ematen baitie. Beraz, uste dut bi aldeei gustatzen zaiela.

Presio handia al da istorio baten amaiera idatzi behar izatea?
Egia esaten badizut, pixka bat presionatuta sentitu naiz. Hobeto esanda, zaurituta sentitu naizela esango nuke, "Animalia zaurituak" delako eleberriaren titulua eta nobelaren amaiera idatzi behar nuela nekielako. Gogorra izan da pixkanaka pertsonaiei agur esatea, eta, beraz, nobela osoa agur esateko ariketa izan da. Negar asko egin dut azken kapitulua idazten, trama nahiko gogorra baita, eta agurra, gainera. Idazten nuen bitartean, uste dut gehien negar egin dudan nobela dela.

Zer sentitzen duzu jendeak azkar batean irakurri duela esaten dizunean?
Alde batetik, asko pozten zara. Sinestezina dirudi jendeak egun bat bakarrik behar izatea zuk idazteko urte eta erdi behar izan duzun zerbait irakurtzeko. Hala ere, amaitutakoan, hurrengoa eskatzen hasten dira.

Zailtasun berezirik aurkitu duzu azken liburu hau idazterakoan?
Amaierak beti izaten dira alderdirik neketsuena. Dena lotu beharra dago liburua amaitu aurretik eta batzuetan ez da erraza konponbidea aurkitzea. Uste dut hori dela gehien kostatzen zaidana.

Asko kostatu zaizu etapa hau ixtea?
Bai. Jada aurrekoekin loturarik ez duen beste liburu bat idatzi dut eta, hala ere, ezinezkoa izan zait Eider eta Jon Ander ez aipatzea. Beti hor egongo direla sentitzen dut. Burua etengabe martxan daukat eta jada beraientzako beste istorio bat buruturatu zait, baina ez dut uste une egokia denik istorio horrekin jarraitzeko. Ikusiko dugu zer gertatzen den hemendik urte batzuetara.

Zein beste proiektu dauzkazu eskuartean?
Proiektuak ditut datorren urterako. Dagoeneko idatzita neukan eleberri honekin ari naiz lanean, zuzenketak egiten. Teorian datorren urtean aterako naiz, baina ez didate asko hitz egiten uzten. Telebistarako gidoi bat idazteko proposamena ere badaukat.

Genero beltza lantzen jarraitzeko asmoa duzu?
Polizia eleberriak idazten jarraitu nahi dut. Irakurtzen dudana eta idazten dudana da, haur literatura kenduta. Istorio berria Euskal Herrian kokatzen da, Irungo komisarian. Protagonistak bi emakume Ertzain dira.

Kalean Bai programaren bitartez euskara bultzatzen jarraitzeko asmoa berretsi da

Kalean Bai plana 2002. urtean sortu zen, hitzarmena sinatu zuten Irungo elkarteek antolatutako ekintzetan euskara bultzatu zedin. Ia 20 urte geroago Irungo Udalak ekimena berraktibatzeko beharra atzeman du. Horrela, Kalean Bai programaren biziberritze prozesuari ekin zaio, euskalduntzeko tresna erreferente bilakatu dadin.

Kalean Bai plana Irungo aisialdiko jarduerak eta ekintzak urratsez urrats euskalduntzeko helburuarekin sortu zen duela urte batzuk. Miren Echeveste Irungo Udaleko Euskara ordezkariak adierazi duenez, "Kalean Bai plana jada oso ezaguna da askorentzat". Hitzarmengintzaren bitartez, 90 elkartetik gora izan ziren izena eman zutenak 2020ra arte, eta 64k zuten sinatuta hitzarmen orokor edo espezifikoren bat. Orain, Udalak, Euskara Arloaren bitartez, ekimena berritzeko beharra nabaritu zuen, Kalean Bai planari bultzada berri bat emateko.

Miren Echevestek azaldu duenez, "biziberritze prozesu baten erdian gaude". Programa berraktibatzeko prozesua faseka egingo da. Aurretik hitzarmena sinatuta zuten entitateekin hasi da lanketa. Hain zuzen ere, elkarte horiek 25 urte bitarteko haur eta gazteentzako eskola-orduz kanpoko jarduerak antolatzen dituzte eta euskara bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berresteko gonbita egin zaie. Euskara ordezkariak gaineratu duenez, "Udalaren partetik zerbitzu katalogoa zabaldu dugu baita ere eta prestakuntza bezalako bestelako zerbitzu batzuk eskaini nahi ditugu, euskararen erabileraren sustapen honetan laguntzak emateko eta estrategiak bateratzeko".

Lehen fasea
Abenduaren 1ean hitzarmena berritzeko lehen sinadura ekitaldia egin zen Irungo udaletxeko Areto Nagusian, aurretik Kalean Bai programaren parte ziren elkarteekin. Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu zen ekitaldietako bat izan zen. Bertan José Antonio Santano alkateak, Miren Echeveste Euskara ordezkariak eta Kalean Bai hitzarmena berritu duten lehen entitateetako ordezkariek parte hartu zuten.

Behin lehen sinadurak eginda, 2022an gainontzeko entitateekin jarraituko du aurrera prozesuak: banan-banan deituko zaie eta hitzarmena berritzeko prozesuari ekingo zaio. Eta azkenik, Kalean Bai unibertsoa zabaltzeko deia egingo da, azken urteetan sortutako eta haur eta gaztetxoekin lanean diharduten elkarte eta talde guztietara iristeko. Miren Echevestek adierazi duenez, "seinale ona da elkarte berriek planera batzeko adierazi duten konpromisua". Izan ere, egunero haur eta gazteekin lan egiten dutenez, argi ikusten dute gurasoen eskaria zein den: eskolaz kanpo haurrak euskara gehiago erabil dezatela.

Lehen fase honetan, honako elkarte hauek sinatuko dituzte egungo egoerara egokitutako hitzarmen berriak: Ametsa Abesbatza Kultur Elkartea, Auntxa Trikitixa Eskola, Bidasoa Atletiko Taldea (BAT), Bidasoa Judo Elkartea, Bidasoa KE (eskubaloia), Bidasoa XXI Igeriketa Elkartea, Eraiki Dantza Taldea, Erroibide Saskibaloi Kluba, Ibarla-Meaka Dantza Taldea, Irun Rugby Taldea/Txingudi Errugbi Taldea, Irungo Txirrindulari Elkartea, Jaizubia Hipika Elkartea, Kemen Dantza Taldea, Leka Enea Mahai-Tenis Elkartea, Mariño Kirol Kluba, My Dance Studio, Pauso-K akademia, Real Unión Kluba, Santiagotarrak Kirol Elkartea, Skola Musik eta Txorimaloak Soinu Taldea.

Elkarteen arteko saretzea
Entitate bakoitzak konpromiso propioak hartzeaz gain, asmoa da Kalean Bai planaren bitartez Irungo elkarteen sarea osatzea, elkar laguntzeko eta elikatzeko balio izango duena. Hala ere, helburu amankomun bat izango dute: 25 urtez azpiko haur eta gaztetxoei zuzendutako Irungo aisialdia euskalduntzen jarraitzea. "Foroak estrategia bateratuak sortzeko baliagarriak izan daitezkeela uste da", adierazi du Miren Echevestek. Euskara ordezkariak gehitu duenez, euskararen sustapenean, elkarteek beren eguneroko jardunean hainbat zailtasun topatzen dituzte eta, egiaztatu dutenez, zailtasun horietako asko partekatuak dira

Beraz, begiraleek eskura izan behar dituzte zailtasun horiei aurre egiteko laguntza eta tresna pedagogikoak. Euskara ordezkariaren ustez, "horrela, euskararen erabilera sustatu ahalko dute, ez bakarrik haur eta gazteen artean, baita guraso zein komunitate osoan". Bide horretan, Kalean Bai hitzarmena sinatzen duten elkarteek Udala bidelagun izango dute, haien esku jarriko baita zerbitzuen eta dirulaguntzen katalogoa. Euskara Arloaren bitartez, besteak beste, zuzenketa eta itzulpen zerbitzua, interpretaritza maleta eramangarria edota prestakuntza eta sentiberatze saioak jaso ahalko dituzte.

Zerbitzuen katalogoa
Elkarte edo erakunde bakoitzak, hitzarmen bidez zehaztuko du euskarari zein mailatako lehentasuna emateko konpromisoa hitzartzen duen. Beraz, elkartea jada euskararen gunean egon daiteke edo euskalduntze prozesuan. Hautatutako konpromisoaren truke, Irungo Udalak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio bat egin duen elkarte edo erakundeari, horietako guztiak doan.

Eskainitako zerbitzuen artean elkarteek aholkularitza laguntza jasotzeko aukera izango dute, beren beharretan eta hizkuntza kontuetan dauzkaten zalantzak argitzen laguntzeko. Bestetik, denboraz eskatuak, elkarteko dokumentazio, eskutitz eta, oro har, idazkiak euskarara itzultzeko aukera izango dute. Azkenik, elkarteek antolatutako jarduera publikoak euskaraz aurkezteko pertsonak edo interpretazio sistema eramangarria eskainiko da.

Era berean, hainbat dirulaguntza izango dituzte eskura. Euskara ikasi edo hobetzeko, euskara ikastaroen matrikularen % 100az gainera, udako euskal unibertsitateko ikastaroak, euskarazko aisia eta kirol ikastaroak ere diruz laguntzen dira. Errotuluak eta webguneak euskara hutsean jartzeagatik kostuen % 75 ordainduko zaie eta ele bietan jartzeagatik, berriz, % 50. Aurkezle euskaldunak kontratatuz gero, Kalean Bai elkarteek orduko 40 euroko gehienezko diru-laguntza jaso dezakete. Gainera, euskararen erabilera sustatu eta indartzeko ekimenak diruz lagunduko dira.

Aipatutakoez gain, urtean zehar Kalean Bai planeko elkarteentzat baliagarriak izan daitezkeen materialen eta tresnen informazioa emango da.

Leka Enea mahai-tenis klubak jo eta ke jarraitzen du lanean Gabonen bezperan

Hiriko kirol klub gehienek Gabonetan beren jarduera eten eta deskantsu txiki bat hartu ohi dute entrenamenduak eta partiduak murrizten direla aprobetxatuz. Eguberrien bezperan, ordea, Leka Enea klubak buru-belarri jarraitzen du lanean, Sonia Etxezarreta Teknifikazio Zentroko jokalariek beren onena ematen duten bitartean.

Ligako bosgarren jardunaldian gizonezkoen zein emakumezkoen Super mailako taldeek partidarik jokatu ez dutenez, mahai-teniseko Irun-Lekaenea klubeko gainerako kategoriek hartu dute protagonismoa.

Liga nazionaletan: Gizonezkoen Ohorezko Dibisio taldeko Irun-Lekaenea Ascensores Bidasoa taldea Madrilera joan da One Vision Parla eta Alcobendas taldeen aurka partida bikoitza jokatzera. Parlako talde indartsuaren aurka 4-2 eta Alcobendas taldearen aurka 5-1 amaitu dute.

Hodei Mancha (2), Iker Martínez Catalán (3) eta Bojan MiloseviC (4) jokalariek lortu zituzten puntuak Irungo taldearentzat jokatutako bi neurketetan. Bi garaipen horiei esker, urtea 8 punturekin eta liderrekin batera amaitu ahal izango dute bakarka, eta galdu gabe. Horrela, denboraldiko bigarren itzuliari lasaitasun apur batekin aurre egin ahal izango diote. Hortaz, aurreko denboraldian lortutakoa errepikatzen saiatuko dira, azken fasea jokatu ahal izateko.

Gizonezkoen Lehen Nazionalean Irun Lekaenea Securhabitatek garaipena lortu zuen Iruñeko Fotona Solar Oberena taldearen aurka (4-2). Iker Garcíak (2), Victor Santamartak (1) eta Aimar Chamorrok (1) lortu zituzten puntuak. Ohorezko Dibisioko bere taldekideek bezala, lehen itzuli perfektua lortu dute, partidurik galdu gabe eta taldeko lider gisa ere amaituz.

Emakumezkoen Lehen Nazionaleko neskek Burgosen egindako bidaia hirukoitzean nota ona lortu zuten, izan ere, 2 garaipen lortu dituzte (Burgosko Unibertsitatearen aurka 4-2 eta Torrelavegako ETMren aurka 6-0) eta porrota jaso dute Club Deportivo Coyanzaren aurka (2-4).

Amaia Angulo (3), Irati Otamendi (4), Irati Yarzabal (5) eta Saioa Ñiguez de Onsoñok lortu zituzten puntuak 3 neurketetan. Emaitza hauekin taldeak taularen erdi eta goi aldean kokatzea lortu du eta hurrengo urtean Leonen jokatuko dute urteko lehen kontzentrazioa.

Bigarren Nazionaleko taldeek porrota eta garaipena lortu dituzte. Irun Lekaeneak 6-0 irabazi zuen Beraun-Renteriaren aurka. Puntuak Iker Plaza (2), Eneko Rodríguez (1), Xabi Toquero (2) eta Iker Martínez Zabala (1) jokalariek lortu zituzten. Berriz ere, denboraldi perfektuko lehen itzulia (4-0) Irun-Lekaeneako beste talde batentzat.. Nabarmentzekoa da kategoria horretan berriak direla eta maila horietan eskarmentu handiko jokalariak dituzten taldeei aurre egiten ari direla.

Azkenik, Irun-Lekaenea-Prosetecnisa taldeak 2-4 gainditu zuen C.D Fortuna K.E- Super Amara. Aimar Mikelajaureguik (1) Beñat Garciak (1) eta Haitz Mínguezek (2) lortu zituzten puntuak. Kategoria honetan Leka Eneak duen bigarren taldeak 4. eta azken-aurreko postuetan amaitu du lehen itzulia.

Sailkapen txapelketa

Aurten ere, urteko data hauen inguruan ohikoa izaten den bezala, Madrilen San Sebastian de los Reyesen Estatuko txapelketarako sailkapen-txapelketa ospatu da. Irun-Leka-Enea Mahai-Teniseko 9 jokalari bertaratu dira, eta horietako 4k hurrengo Estatuko Txapelketarako txartela lortu dute.

Leka Enea taldetik sailkatutako jokalarien artean, Julen Goikoetxea mutil benjaminak zortzigarren postuan amaitu zuen. Haurren txapelketan, berriz, Eneko Rodriguezek bere kategorian hirugarren postu lortu zuen. Xabi Toquero bigarren izan zen eta Iker Garcia hirugarren, beraz, haiek ere Espainiako Txapelketa jokatu ahal izateko pasea eskuratu zuten. Hortaz, azken 4 izen hauekin, Irun Leka-Eneako 16 jokalari izango dira hurrengo Estatu Txapelketa jokatuko dutenak.

Hala ere, emakumezko gazteen kategoriako Irati Otamendik taldeko laugarren izatea lortu zuen. Era berean, Haiyang Bartolomé, haurren mailakoa, taldeko 4. izan da. Haurren mailan lehiatzen diren Lander Cereceda final hogeita hamabigarrenetara iritsi da eta Nathaniel Ibarra final hamaseigarrenetara. Claudia Rodríguezek kimu nesken artean hamargarren postua lortu zuen.

Top 8 nazionala

Joan den asteburuan ospatu zen Madrilen Top 8 Nazionala, non gizonezkoen zein emakumezkoen kategorietako zortzi jokalari onenak elkartzen diren, benjamin eta jubenil mailakoak.

Bertara joan dira Irun-Lekaeneako ekitaldi honetarako sailkatutako bi jokalariak, etxeko entrenatzaileetako batekin batera, C. Gabilondorekin. Alde batetik, Iker Martínez Catalánek Gazteen mailan txapelketa bikaina burutu du partida bikainak eskainiz eta seigarren postuan amaituz, hiru garaipen eta lau porrotekin, azken unera arte podiumerako aukerekin egon den arren.

Bestalde, Beñat Garcíak, haur mailan, bigarren Top 8a jarraian ospatu du, eta horrek agerian uzten du oso joko egoera onean dagoela eta oso partida estuak jokatu dituela, baita maila horretako a priori faboritoetako bati irabazita ere. Azkenean 8. tokian amaitu du.

Gabonetako Krosak kirola eta Eguberri giroa elkartuko ditu abenduaren 18an

Abenduaren 18an Super Amara Gabonetako Krosak Eguberrien bezperan elkartuko ditu lasterkariak. Probaren 7. edizioa izango da. Lasterketa arratsaldeko 15:30etan hasiko da, Luis Mariano inguruan, txikien lasterketarekin. 16:45etatik aurrera, berriz, helduen txanda izango da eta 5 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik.

Bidasoa Altetiko Taldeko Iñigo Eseverrik azaldu duenez, aurtengo ibilbidean ez da aldaketarik izan aurreko urteekin alderatuta. Lasterketa Colon pasealekuan hasi eta Luis Mariano oinezkoentzako gunean amaituko baita. Izen-emateak zabalik daude kirolprobak.com webgunean eta atletismobat.com klubaren webgunean. Dortsalak, berriz, Palmera Monteroren eraikinean jasoko dira abenduaren 17an, ostirala, 17:00etatik 21:00etara, eta abenduaren 18an, larunbata, 10:00etatik 12:30era.

Aurten ere, banakako zein taldekako sailkapenak izango dira: gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoak. Proban, gainera, 6 edizioetako 3 irabazleek parte hartuko dute eta probaren errekorra gainditzen saiatuko dira, gaur egun 14 minutu eta 56 segundotan dagoena.

Emakumeen parte-hartze handia

Iñigo Eseverrik Iñigo Lavado lasterketaren aurkezpenean azpimarratu duenez, helduen karreran parte hartzaileen % 34 inguru emakumezkoak dira. "Emakumezkoen ehunekoa handi samarra da, eta, bestalde, parte-hartzaileen batez besteko adina txikia da", azaldu du Bidasoa Altetiko Taldeko ordezkariak. Hori dela eta, oso karrera gaztea izango da eta emakumeen partaidetzak kirol probetan gero eta handiagoa dela erakusten du. "Hori mantendu eta hobetu nahi dugu etorkizuneko edizioetan", gaineratu du Eseverrik.

Lasterketa txikia

Bost kilometrotako lasterketaren aurretik, 1 eta 11 urte bitarteko umeentzako doako lasterketa antolatu du berriro BATek. Guztira, 500 izen-emate eskaini dira adin tarte horietarako. Haurrek Super Amararen hamaiketako osasungarri bat jasoko dute, baita Cuetarak eskainitako galleta batzuk eta parte hartzeagatik ematen den litxarreria poltsa bat ere. Maider Izagirre Super Amara taldeko ordezkariak azaldu duenez, "Super Amarak eta Bidasoa Atletiko Taldeak balio berberak ditugu". Beroketa-sistema errepikatuko da, BATeko monitoreen bidez, eta haurrak beren irteeretara eramango dituzte.

Euro solidarioa

Ekitaldi honek bere zati solidarioa du, non Bidasoa Atletiko Taldeak proban izena eman duen lasterkari bakoitzeko euro bat ematen dion izaera solidarioko antolakunde ezberdin bati. Aurten, Bidasoa Atletiko Taldeko zuzendaritza-batzordeak erabaki du dohaintza hori Diabetescero elkarteari ematea. Haurren probarako izen-ematea doakoa bada ere, gurasoek Diabetescero elkartearen jardueran laguntzeko diru ekarpenak egin ahalko dituzte.

Ana Esgueva Diabetescero elkarteko ordezkariak lasterketaren aurkezpen ekitaldia aprobetxatu zuen diabetesa zer den eta mota desberdinak zeintzuk diren azaltzeko. Daibetescero elkarteko ordezkariak azaldu duenez, horrelako egitasmoek diabetesarentzako sendaketa aurkitzeko ikerketak laguntzen dituzte. "Horrelako ekintzek gaixotasuna ikusarazten laguntzen digute", adierazi du Ana Esguevak, diabetesa, kirola eta bizimodu osasungarriaren arteko lotura estua dela gogoratuz.

Pandemiari aurre egiteko neurriak

Pandemiaren egoera dela eta, korrikalarien erantzukizuna eskatzen zaie ekitaldia egiten den bitartean. Gainera, Bidasoa Altetiko Taldeak neurri bereziak hartu ditu probaren egunean lasterkari, antolatzaile eta ikusleen segurtasuna bermatuta egon dadin. Besteak beste, gel hidroalkoholikoa eta maskarak erabili beharko dira idazkaritzan, kontsignan, helmugan eta anoa postuan. Zehazki, maskara uneoro erabili beharko da, korrika egiteko momentuan izan ezik. Lasterketa hasi aurretik, korrikalariak irteera-kaxetan banatuko dira, ahal den neurrian, parte-hartzaileen arteko distantzia mantendu dadin.

Zazpigarren edizio honetan anoa poltsa itxi batean banatuko zaie lasterkariei. Dena den, lasterketan anoa postu solidoak ezabatu dira kontaktu handiko tokiak murrizte aldera. Hala ere, lasterkariek ibilbidean ura edateko aukera izango dute. Era berean, jendea asko elkartu ohi den lekuetan korridoreak sortuko dira, pertsona fluxuak egoki bideratu eta pilaketak saihesteko. Astebete lehenago lasterkariei mezu bat bidaliko die lasterketaren antolakuntzak arau eta neurri hauek guztiak gogorarazteko.

Bestetik, Bidasoa Altetiko Taldeak dortsalak banatzeko orduan sistema berritzaile bat jarriko du martxan. Izan ere, inskripzio-egiaztapena egiteko QR kodea erabiliko da, izen-ematea egiterakoan korrikalariei banatu zaiena. Horrela, dortsalak banatzerakoan pertsonen arteko kontaktua murriztu nahi da. Era berean, dortsalak lasterkariak berak edo korrikalariak hautatutako norbaitek jaso ahal izatea erraztuko du. BATek sistema berri hau probatuko duen lehen aldia da. 7. Gabonetako Krosa izango da eta, ondo funtzionatzen duela egiaztatzen bada, klubak aurrerantzean antolatuko dituen lasterketetan erabiltzen hastea aurreikusita dago.

Saturnalietatik Gabonetara

OIASSO MUSEOA

1. Argazkia: Antoine F. Callet (1783), Saturnaliak edo Negua (Les Saturnales ou l'Hiver).

2. Argazkia: "Helios edo Eguzki jainkoaren irudidun luzerna, Irungo Altamirako meategietan aurkitua. Oiasso Museoa".

Iturria: https://collections.louvre.fr/ark:/53355/cl010060512".

Gaur egun, abenduan izaten ditugun jaiegun eta ospakizunak kultura kristauari oso lotuak daudela agerikoa da. Ordea, kristautasunaren aurreko erromatar garaian ere kontuan hartzeko datak ziren hauek, gehienbat egun hauetan ospatzen zirelako Saturno jainkoaren omenez egiten ziren Saturnalia jaiak, egutegi erromatarreko festa garrantzitsu eta herrikoienak.

Baina, nor zen Saturno eta zergatik gurtzen zen? Saturno erromatar jainko guztien artean zaharrenetako bat dugu. Tradizioaren arabera, antzina, Saturnoren gobernupean munduak urrezko aro bat bizi izan zuen, non gizaki guztiak berdinak ziren. Gainera, jainko hau nekazaritzaren eta uztaren jainko babesle nagusia zen, gizakiari laborantzaren ezagutzak eman zizkiola uste baitzen. K.a. 497. urtean Erromako foroan Saturnori tenplu bat eraiki zitzaion eta ordutik aurrera urtero abenduaren 17an, Saturnalia jaia ospatzen zen, urte horretan ereindako uzten babesa eskatzeko. Bere tenplu nagusiko estatua urte osoan zehar soka batekin loturik izaten zuten, jainkoak Erromatik ihes egin ez zezan, baina Saturnalia egunean lokarria askatzen zen Saturnok ere jaiekin disfrutatzeko. Aipatutako tenplua hurrengo mendeetan zehar handitu eta edertua izan zen eta estatu erromatarraren altxor publikoa gordetzen zen bertan.

Hasiera batean Saturnaliak egun bakar bat irauten zuen. Baina urteak pasata jaialdia 17tik 19ra luzatzea erabaki zen eta programa ofizialetik at, askok ospakizuna 23raino eramaten zuten. Egun hauetan zehar, esklaboek behin behineko askatasuna eskuratzen zuten hiritar libreekin batera festan parte hartu zezaten, eskoletan eta epaitegietan lanaldia eteten zen eta zenbaitek ere lantokian egun librea zuten jaiaz gozatzeko. Erritual eta ekitaldi ezberdinen artean, garrantzitsuenak Saturnori eginiko sakrifizioa eta ondoren egiten zen convivium publicum oturuntza edo bankete publikoa ziren, bi ekintza hauetara nahi zuen oro bertaratu ahal zelarik. Bestela ere, otorduak, alkohola eta musika ziren nagusi Erromako kaleetan barrena gau eta egun. Urteko egun hauetan apustuak eta zorizko jokoak legezkoak ziren eta antolatzen ziren banketeetan ohikoa zen mahaikideak mahai jokoetan eta apustutan aritzea. Zozketak ere egiten ziren eta txartel irabazledunak luxuzko sariak edota diru kantitate mardulak lortu zitzakeen.

Jaialdiaren barnean, hirugarren egunean zehazki, Opalia festak ospatzen ziren, Ops jainkosaren omenez. Ops Saturnoren emaztea zen, uztaren emankortasunarekin loturiko dibinitate bat. Urtean bitan egiten zitzaion gurtza: bata garai honetan, uzta erein ondoren hura babestu ahal izateko; bigarrena abuztuaren 25ean, uzta jaso eta gero (Opiconsivia jaia bezala ezaguna). Saturnalien azken egunak sigillaria izena hartzen zuen eta egun horretan senide eta gertuko lagunen artean opariak elkartrukatzen ziren. Erregalu ezberdinen artean kandelak eta sigillaria deituriko argizari edo zeramikazko figuratxoak topatu ahal ditugu. Egunaren izena bertatik dator. Antza, festa hauetan nonahi topatu ahal ziren opari gisa ematen ziren objektuen salmenta postutxoak. Azken egun honek Larentalia jaiarekin bat egiten zuen. Larentalian Acca Larentia-ri (mitoaren arabera Romulo eta Remoren adopziozko ama) eskaintzak egiten zitzaizkion ustez lurperatua zegoen hilobian.

Abenduaren 25ari dagokionez, K.o. 274. urteraino ez zen egun berezitzat hartu erromatar egutegian. Aipatutako datan Marteren Zelaian tenplu bat altxatu zen Eguzki jainkoaren omenez, neguko solstizioarekin loturiko bere gurtza ofizialduz. Geroago zirko jokoak ere gehitu zitzaizkion ospakizunari, baina pixkanaka Eguzki jainkoa ekialdeko bestelako dibinitate batzuekin identifikatu zuten zenbaitek, Mitra eta Jesukristorekin kasu, egun hau bera ezarriz jainko hauen jaiotegun gisa. Urteberria ere azpimarraturik zegoen erromatar egutegian, oraingo honetan hasi berri zen urtea oparoa izan zedin eskatzen zitzaien jainkoei. Dakigun bezala, azkenean kristautasuna gailendu zen, baina Saturnalien eragina ez zen guztiz desagertu. Tradizio paganoko beste jai askorekin gertatu zen bezala, erlijio kristauak bere interes eta sineskeretara egokitu zituen aurretik existitzen ziren ospakizun eta erritual asko, aurreko lerroetan aipaturiko abenduko festa giro erromatarra kasu.

Aurten ere Oiasso Museoak Gabonetarako jarduera programa berezia eskaintzen du, adi egon gure jakinarazpenei.

Oiasso Museotik jaiegun zoriontsuak opa dizkizuegu. Io Saturnalia (Saturnalia zoriontsuak)!

Jokin Lanz

EL PILAR LH2

Denbora-pasak

7 hitz: Gabonak

V	L	Q	F	J	O	A	M	G	A	N	I	V	I
T	M	C	S	I	X	R	V	A	Z	K	H	S	U
P	S	N	R	R	X	U	W	B	V	I	J	S	X
V	J	A	I	O	T	Z	A	O	G	C	F	J	C
Z	F	Z	Z	A	Q	K	A	N	T	U	E	G	I
O	C	M	P	D	U	Z	N	S	E	P	G	G	Z
S	D	N	E	N	D	H	O	A	X	L	O	A	E
P	S	H	U	F	C	K	C	R	Q	H	R	M	I
A	O	H	L	Y	R	L	L	I	X	M	O	E	U
K	S	N	F	F	C	M	R	F	Y	R	S	L	W
I	Z	O	Z	B	J	I	J	X	M	R	T	U	W
Z	X	B	A	Y	E	S	J	R	U	P	I	Q	L
U	P	V	S	P	R	R	E	A	U	S	D	S	M
N	O	T	H	B	J	K	Y	F	O	A	W	J	O

Gabonsari, gorosti, jaiotza, ospakizun, gamelu, izei, kantu.

	3				5			9
	6		7				3	
				3		6	4	5
			5	4				8
					3	5		4
2			9					
6	5		4				7	
7			8	5	6	2		
	9		3					6

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Gure Jesus jaio da

Gure Jesu jaio da
gabaren erdian
Birjiña Amarengandik
Belengo errian.

Otzak eta bearrez
iltzeko zorian
estalpe txar batean
leku irikian.

Jaunari alabantza
Jaunari grazia
Kristo baten izenak
daukagun guztiok.

Kunplitu direlako
egun profeziak
kunplitu direlako
egun profeziak.

Oronoz-Mugaireko M.G.B.ri jasoa (1960-IV-24). Gabon gauean kantatzen zuten Oronozen.

(El Bidasoa, 1960-V-7).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

HIRUBIDE BHI

Haur bati Gabonetako magia zein den azaldu beharko banio ipuin bat kontatuko nioke. Izan ere, norberak Gabonetan sinesten baldin badu, errazagoa da besteei ikusioa eta poza transmititzea. Istorioa hau izango litzateke:

6 urteko neska txiki batek, bere aitari zera galdetu zion aita lanetik iritsi zenean:
- Aita, egia esatea nahi dut.
- Zer nahi duzu?
- Errege Magoak esititzen al da?

Aita izoztuta geratu zen galdera horren jatorri zein izan zitekeen jakin nahian. Orduan, alabak esan zuen:
- Eskolan, nire lagunek, gurasoak direla esaten dute, egia al da?

Aitak begiratu eta erantzun zion:
- Zuk zer uste duzu?
- Nik ez dakit, aita. Batzuetan bazaretela uste dut eta beste batzuetan ez. Alde batetik, uste dut zuek ez zaretela gezurrik esaten ez didazuelako. Baina beste alde batetik, nire lagunek esaten dute eta ez dakit zer pentsatu.
- Arrazoi duzu, gurasoek opariak zuhaitzaren azpian uzten ditugu opariak.

Neskatoak negarren esan zuen:
- Hori egia al da? Gezurra esan didazue?
- Ez, begira. Inoiz ez dizugu gezurrik esan. Erregeak esistitzen direlako -erantzun zuen aitak.
- Ba aita, ez dut ezer ere ulertzen.
- Eseri maitia. Eta entzun kontatuko dizudan istorio hau. Eta gero dena ulertuko duzu.

Neska bere aitaren ondoan eseri zen eta ipuina entzuten jarri zen:
- Jesus haurra jaio zenean, Hiru Errege Magoak Ekialdetik Belen atarira gerturatu ziren eta opariak eraman zizkioten Jesusi. Umea hain alai jarri zen non Meltxorrek esan zuen:
- Ikaragarria da ume bat pozik ikustea. Mundu guztiko umeei opariak eraman beharko genizkieke eta zeinen zoriontsu liratekeen ikusi.
- Oh, bai, ideia on bat da -esan zuen Gasparrek- baina oso zaila izango da. Ume asko dira munduan eta gu hiru besterik ez gara.

Momentu horretan Baltasarrek esan zuen:
- Arrazoia duzue. Eta gainera, oso nagusi gaude gu etxez etxe aritzeko.

Hiru Errege Magoak oso triste jarri ziren. Baina bat-batean, Jesus umeak irribarre egin zuen eta esan zien:
- Nirekin oso onak izan zaretenez, zuen nahia betetzen lagunduko dizuet. Zer da zehatz behar duzuena?
- Oh! -esan zuten harrituta- milioika paje beharko genituzke.
- Ez kezkatu. Ume bakoitzarentzat bi paje emango dizkizuet.
- Nola izango litzateke hori -galdetu zuten.
- Nork maite ditu gehien haurrak eta beraien nahiak ezagutzen dituzte?
- Jakina: gurasoek!

Erregeak Jesusek egindako baieztapenarekin bat zetozen. Handik aurrera, Jesusek gurasoak pajeak izango zirela agindu zuen Umeak gazteak ziren bitarteak opariak Hiru Errege Magoen partes izango zituztela. Eta nagusitzean gurasoek istorio hau kontatuko zietela. Modu honetara, ume nagusiek, gurasoei ere opariak eman ahal izango zizkieten.

Neskatoak Gabonen zentzua ulertu zuen eta oso pozik jarri zen, berak nagusitan pajea izan nahi zuela esanez.

Diana Rivero
Hirubide BHI

Eguberriak, gabon-kantak eta IGA Abesbatza eskutik doaz

IGA Abesbatza Gabonak kantuan ospatzeko prestatzen ari da. Pandemiaren egoerak horretarako aukerarik ematen badu, berriro kaleak kantuz alaitzeko intentzioa dute kantariek. Oraingoan, gainera, senideak eta lagunak beraiekin abestera gonbidatu dituzte. Gainera, Eneko Amondarain abesbatzako zuzendariak azaldu duenez, IGA Abesbatzarentzat 2022. urtea proiektu bereziz beterik datorrela dirudi.

Gabonak data berezia dira abesbatzentzat, ezta?
Hori da, Eguberriak betidanik oso data garrantzitsua dira abesbatzentzat. Familiarekin batera dena partekatzeko unea da. Aurten berriro kaleetara musikarekin itzultzeko aukera izango dugula dirudi.

Nola itzuliko zarete kalera?
Aurreko urteetan egin izan dugun moduan, abenduaren 24an eta abenduaren 31n kalera abestera ateratzeko asmoa dugu, gure hiria girotzeko. Horretarako, hainbat entsegu prestatu ditugu, bai abesbatzako kideentzat zein kanpotik gurekin abestera animatzen direnentzat. Entsegu horiek ostegunetan egiten ditugu eta abenduaren 2an egin genuen lehenengoa. Beraz, hurrengo entseguak abenduaren 16an eta 23an egingo ditugu.

Nolatan bururatu zitzaizuen senide eta lagunak zuekin abestera gonbidatzea?
Hau ez da egitasmoa martxan jartzen dugun lehenengo aldia. Izan ere, ideia 2019. urtean bururatu zitzaigun eta orduan hasi ginen plangintza hau proposatzen. Bi urteko etenaldiaren ostean, berriro gauza bera egin genezakeela bururatu zitzaigun eta gonbidapena egin dugu.

Entseguak egin arren, zuekin abestu ahal izateko ezagutza berezirik behar da?
Ez, ez du zertan. Edonor animatu daiteke gurekin batera abestera. Entseguak egiten ditugunean guztiok ikastera etortzen gara. Beraz, abesteko nahia duten bitartean, guk pozik hartuko ditugu.

Era berean, urtea amaitu aurretik IGA Abesbatzaren kontzertua izango duzue. Noiz izango da?
Aurten IGA Abesbatzak bere urte amaierako kontzertua abenduaren 29an emango du. Kontzertua Junkaleko Andre Mariaren elizan egingo da. Esan beharra dugu Fernando Junkaleko parrokoa asko laguntzen ari zaigula. Izan ere, eliza uzten digu gure kontzertua zein Gabonetako entseguak bertan egin ahal izateko.

Emanaldiekin eta entseguekin, abesbatzek lehengo jarduna berreskuratu duzue?
Buruan helburu bat edukitzeak entseguak edo beste edozein jarduera aurrera eramaten laguntzen du. Horri esker, esaterako, obra berriren bat ikasteko motibazioa lortzen dugu. Bestela, egiten dugun lan guztiak ez dauka zentzurik. Helburu jakin eta zehatz bat izateak aurrera egitera bultzatzen gaitu.

Momentu honetan zein errepertorio lantzen ari zarete?
Normalean urte osoko obra-programa batekin lan egiten dugu. Egia da, data berezi hauek hurbildu heinean Gabonetako obrak lantzen hasten garela. Oraintxe bertan Gabon kantak prestatzen ari gara. Hala ere, urtero obra berriak sartzen ditugu. Bat aipatzearren, Josu Elberdiren "Izar ederrak" kanta gehitu dugu gure zerrendara.

Nolako eragina izan du pandemiak abesbatzen osasunean?
Maila psikologikoan eragina handia izan da. Azken batean, abestea edo musikarekin lan egitea gure eguneroko nahia da. Batez ere, gure artean elkartzeko, lagunekin abesteko eta kontzertuak egiteko aukera ematen digulako. Etenaldi horrek, era batean edo bestean, kalte egin digu ez bakarrik guri, baizik eta abesbatza guztiei. IGA abesbatzan entseguak online egiteko moldatu gara eta horrek ere entseguak grabatu eta berriz egiteko aukera eman digu. Dena den, ezinezkoa da aurrez aurre egiten diren entseguak ordezkatzea.

Aurrez aurreko entseguak berreskuratu arren, segurtasun neurriak hartzen jarraitzen duzue?
Bai. Ezin dugu inoiz ziurtatu % 100eko segurtasun maila, baina ahal diren neurri guztiak hartzen ditugu. Beti maskararekin abesten dugu, gel hidroalkoholikoak eskura ditugu eta CO2 neurgailua erabiltzen dugu airearen kalitatea neurtzeko. Beharrezkoa bada, entsegua gelditu eta gela aireztatzen dugu, airearen kalitate egokia lortu arte.

Pandemiak ez dizue taldean duzuen giro ona lapurtu?
Bai, beti gure artean giro ona izaten saiatzen gara, ezinbestekoa baita.

Irungo gazteek kantatzeko zaletasuna dutela uste duzu?
Abesteko nahia beti hor dago. Nork ez du abesten gaur egun? Dena den, erronka handi bat dugu, izan ere, jendeak uste du abesbatzetan kantatzen dugunok soilik elizako kantak abesten ditugula eta hori ez da egia. IGAn hori erakusten ahalegintzen gara, gure folklorea zein munduko beste obrak abesten baititugu.

Zer eskatzen diozue 2022. urteari?
Urtean bitan aterpetxe batera joaten ahalegintzen gara. Bi urteren ostean, joan den irailean Hondarribiko aterpetxera joan ginen. Beraz, 2022an urteko bigarren irteera egin beharko genuke. Talde lana eta giro ona sustatzeko oso lagungarriak dira irteerak, ikastaro intentsibo bat izateaz gainera. Bestetik, Oskarbi taldearekin elkarlan bat egingo dugu Irunen Aste Santu aurretik. Ideia da guk 20 minutuko euskal musikaren kontzertua eskaintzea eta haiek beste hainbeste, gero elkartu eta elkarrekin 4-5 obra abesteko. Errenteriako Andra Mari Abesbatzarekin elkarlan moduko zerbait martxan dugu eta urte hasieran Errenteriako 700. Urteurrenarentzako kantata bat abestuko dugu. Gainera, 2022an abesbatzen arteko elkartrukeak berreskuratu nahi ditugu eta, horretarako, Bartzelonako batekin elkarlanean ari gara. Urtean behin behintzat horrelako ekintza bat izaten ahaleginduko gara. Ekaina aldera kurtso bukaerako kontzertua egiten saiatuko gara. Horrela gabiltza, poliki-poliki gauzak ixten.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Gazte Gabonak

Gaztelekura ere iritsi dira Gabonak!

Opor hauetan, egunero ekintza edo tailer berezia izango dugu. Guztietan dira mugatuak plazak, beraz eman izena lehenbailehen! Izen emateak, zuzenean Gaztelekuan apuntatuz, edo whatsapp (690706471) edo emailera (gazteleku@irun.org) mezu bat bidaliz egin daitezke.

– Abenduak 21: San Tomas
San Tomas egunean jaten ditugun taloak egiten ikasiko dugu gaurkoan Gaztelekuan! Bi txanda daude aukeran: 17:30 edo18:30.

– Abenduak 22: Loteria + Bingoa
Abendu osoan zehar zuen tiketak eskuratu ondoren, gaurko egunean Gaztelekuan loteriako irabazlearen izena jakingo dugu! Honen ondoren, bingoan arituko gara, eta irabazlearentzako saski berezia egongo da! Loteria 18:00etan izango da eta bingoa, berriz, 18:30etan.

– Abenduak 23: Opari tailerra
Ingurukoentzako Gabonetako opariak zuk zeuk sortzeko aukera izango duzu opari tailer honetan. Txoko ezberdinetan tailer proposamen ezberdinak egongo dira, eta bakoitzak nahi duena egiteko aukera izango du. Tailerrak 17:00etan hasiko dira Gaztelekuan.

– Abenduak 24: Gaztainak
Arratsalde berezi honetan, gaztainak erre eta elkarrekin jango ditugu Gaztelekuan. Ekintza 16:00etan hasiko da Gaztelekuan. Egun honetan Gaztelekua 16:00etatik 19:00etera egongo da irekia.

– Abenduak 28: Tranpantojo sukaldaritza
Sukaldaritza berezi honetan, argi ikusiko dugu dena ez dela guk ikusten dugun modukoa. 17:00etatik aurrera Gaztelekuan egingo da.

– Abenduak 29: Robotika
Robotika tailer honetan, SUMOBOT robotak programatzen ikasiko dugu, eta sumoboten arteko lehiaketa prestatuko dugu! 17:30etan hasiko gara Gaztelekuan.

– Abenduak 30: Among us kartak
Askotan jolastu dugu karta jolas berezi honetara, baina oraindik zuetariko askok eskatzen jarraitzen duzuenez Gabonetan ere Among Useko karta jolasean arituko gara! 17:30etatik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduak 31: Mendi irteera
Urteari azken agurra emateko mendira igoko gara goiz honetan! Goizeko 10:00etan aterako gara Palmera Montero gunetik.

Aurretik adierazitako ekintza guztiak

GAZTEGABONAK

Asun Casasola Ipuin laburren lehiaketa

Lehiaketa honetan bi pertsona multzok parte har dezakete, bakarka nahiz taldean:

– Gazteek: 2005etik 2011era bitartean jaiotakoek.

– Helduek: 2004an edo lehenago jaiotakoek.

Gaia: Iristerakoan abisatu.

Epea: 2022eko otsailaren 10a.

Eski irteera

Eskiatzera goaz! Gurekin etorri nahi?

Eguna: abenduak 28, asteartea.

Tokia: Candanchu

Ordutegia:

- Joan: goizeko 5:30etan, Biserako bus geltokian

- Itzuli (gutxi gora behera): 20:00etan, Biserako bus geltokian

Adina: 12-25 urte

Prezioa: 45€ (autobusa, asegurua, bi orduko ikastaroa, forfaita eta materialaren alokairua barne)

Izen-ematea:

- 1. Izen emate orria bete...

- 2. Ordainketa ondorengo kontu korronte zenbakian egin:

KUTXABANK ES05 2095 0611 0910 6340 6317.

Kontzeptuan PARTE HARTZAILEAREN izena, abizenak eta egin nahi duen txangoa adierazi ("eski irteera").

- 3. Bi dokumentuak posta elektronikoz bidali (konekta@irun.org). Konekta zerbitzutik konfirmazio korreoa jasotzerakoan izango da eraginkorra izen ematea.

Irunen erroldatuak dauden gazteek lehentasuna dute ekintza honetan parte hartzeko. Beraz, inguruko herrietako gazteek abenduaren 16tik aurrera izango dute plaza lortzeko aukera (betiere plazak geldituko balira).

Plazak, dokumentuak jaso ahala esleituko dira

Irteeraren egunerako informazio garrantzitsua:

– Hamaiketakoa, eguzkiko krema, betaurrekoak, txanoa, eskularruak: motxilaren goikaldean.
– Aldatzeko arropa (galtzerdiak, kamiseta, galtzak, barruko arropa, sudadera) eta etxeko bazkaria: motxilaren beheko partean.
– Alergiak eta botikak hartu behar ezkero abisatu.
– Eskiatzeko arroparekin jantzita etorri (galtzak, galtzerdi luzeak,etab.)



ABENDUAK

19

Kontzertua

Zer: Eguberrietako kontzertu sinfoniko korala Ametsa abesbatzaren eta Orquesta Ma Non Tropporen eskutik

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo emanaldiaren egunean antzokiko leihatilan.

Egitaraua: Vivaldi, Mozart.

23

Olentzeroren etorrera

Zer: 17:00etan Alberto Anguera plazatik irtengo da eta hiriko erdiguneko kaleak zeharkatuko ditu San Juan plazara iritsi arte.

Ordutegia: 18:30etatik 21:00etara.

Non: Irungo Udaletxeko arkupetan egongo da umeen gutunak biltzen.

24

Kantu jaialdia

Zer: Olentzero eta Eguberri kantuen jaialdia.

Ordua: 19:00etan.

Non: San Juan plazan.

29

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Zer: 1988an kaleratutako "Bart, non ote nintzen ni?" abestia abiapuntu, Euskal Herrian zehar ospatzen diren jai eta tradizioen alde politak zein astakeriak plazaratzen dituen kale formatuko saioa da.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan antzerkiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

29

Rock Kalean

Zer: Rock Kalean ikuskizuna.

Non: Luis Mariano, Zabaltza plaza eta San Juan plazan.

Ordua: 19:00etatik 21:00etara.

30

Dantza

Zer: Hiriko dantza-akademien emanaldia.

Non: Hiriko hainbat lekutan.

Ordua: 17:30etatik 20:30etara.

Denbora-pasen emaitzak

V	L	Q	F	J	O	A	M	G	A	N	I	V	I
T	M	C	S	I	X	R	V	A	Z	K	H	S	U
P	S	N	R	R	X	U	W	B	V	I	J	S	X
V	J	A	I	O	T	Z	A	O	G	C	F	J	C
Z	F	Z	Z	A	Q	K	A	N	T	U	E	G	I
O	C	M	P	D	U	Z	N	S	E	P	G	G	Z
S	D	N	E	N	D	H	O	A	X	L	O	A	E
P	S	H	U	F	C	K	C	R	Q	H	R	M	I
A	O	H	L	Y	R	L	L	I	X	M	O	E	U
K	S	N	F	F	C	M	R	F	Y	R	S	L	W
I	Z	O	Z	B	J	I	J	X	M	R	T	U	W
Z	X	B	A	Y	E	S	J	R	U	P	I	Q	L
U	P	V	S	P	R	R	E	A	U	S	D	S	M
N	O	T	H	B	J	K	Y	F	O	A	W	J	O

4	3	1	2	6	5	7	8	9
5	6	8	7	9	4	1	3	2
9	2	7	1	3	8	6	4	5
3	7	6	5	4	2	9	1	8
1	8	9	6	7	3	5	2	4
2	4	5	9	8	1	3	6	7
6	5	3	4	2	9	8	7	1
7	1	4	8	5	6	2	9	3
8	9	2	3	1	7	4	5	6